"beste izkundeetatik, itz asko; baño adi-"tuaz, ta oituaz, Euskerakoak bezain ongi "aditzen diranak, eta oyek utzi bear ezti-"tugu; ta bearbada noiz edo berriz obeto "da, onelakoak usatzea, euskerazkoak ba-"ño... Lajatuko ditugu erbesteko itz oriek, "nai badegu ,gure euskerarenak, pixkabana "usatuaz ta erabilliaz eskukoi ta jakiñak "egingo diradenean. Ongi egin duzu, Na-"farroako itzen batzuek ekartzea, egokiak "diranean, eta besterik eztanean. Zerren, "leenbizian, ta batbatetan aditzen ezpadira, "aurki adituko dira, ta geienak dagoaneko "aditzen ere badira; ta ala euskera bide "batez, edertzen ta ugaritzen da".

"Etzaitzatela tontotzarren erausiak oz-"pindu ta ikaratu; eztirade gendarlekoak; "itzera ona, bear danezkoa zein dan, ezte-"zu ayetan aurkituko; ezta bilatu bear "ere". (3).

Euskaldun biotz oneko jakintsun baten gogoeta ederrak, bear ginituen begiratu eta onartu. Ala biz.

LARREKO.

(1) Aita Mendiburu'ren "Jesusen Biotzaren Debozioa" 15'g. orrialdea.

(2) Aurreko idazti bertan 17 g. orrialdean.

(3) Idazti bertan 19'g orrialdean.

ANDOAIN'GO JAYAK ETA GURASO EUSKALDUNAK

Aspalditxuan euskerearen alde beste iñoz baño lan geyago egiten da; ori ta guzti be adu txarreko txoriak Reklus'egaz diñoskue: Euskalerriarenak egin dau, eriotzako lezara arin-aringa doa. ¿Egia ete-da? Eta baldin egia ba'litz ¿errua norena litzake? Euskaldun guztioena; baña umeai euskerarik irakasten eztautsien gurasoena batez be.

Euskera dakien gurasoak, andiki ta aberats usañekoak aurrenengo direala, seme-alabatxuei euskera irakatsiko ba'leutsie. Euskalerria ilgo dan bildurrik elegoke. Ain zuzen be ori egin ezagaitik meaztu garean euskaldunok, ori egiñaz beste barik meatzuneak beteta, geitu ta ugarituko gintzakez eta eriotzara goazala diñauskuen orrei, barre egingo geuskioe.

Zoritxarrez, eskuarte ontxua dauken eta zerbait ba-dirala uste daben guraso askok, euskaldunak izan arren be, arropuzkeriz umeai eztautsie euskerarik irakasten. Au dala-ta gaur etxe bat, biar beste bat, igarri barik, galtzen doguz euskerearentzat.

Gaur egunean euskereak arerio asko deukaz; baña nire eretxiz, areriorik andiena, kalterik geyen dakartsona, zedenaren antzera euskerearen mamia jaten diarduan ar txarra, orixe da. Burua galduta gabiltz eta siñestu be eziteko gauzak entzuten doguz. Erea datorrenean, euren buruak euskaltzale egiten dabezan guraso euskaldunei, bein baño sarriago entzun dautset: "Euskerea galtzea zoritxar andia litzaketa, olakorik jazo eztaiten, langille, baserritar, arrantzale ta olakoak euren umeai euskera irakatsi bear leuskioe".

—¿Bai, e? Eta zuek ¿zegaitik ez?—Gure seme-alabatxuak euren ikasketak erderaz egin bear dabez-ta, erdera naita-ez jakin bear—.Baña, gizonak eneak, erdera jakiteko, euskera baztertu, zokondoratu egin bear ete-da? Ori baño beste biderik ¿ez ete -dago? Gaztetxuak izkuntza bat nai bi erraztasun bardiñaz, bape neke barik, ikasten dabez eta diñozuen ori atxakia baño besterik ezta.

Atxaki ta guzurrik eztogu bear, egia ta gogo ona baño, eba egia auxe da: Zuek, andiki ta aberats usaindunok umeai euskera ta erdera irakatsi; baña erderea bearrezkoa eztanean, naiz etxean naiz kalean ,euskerea erabiltea, askok be errezago, zuzen eta bidezkoago da, zeuek euskerea baztertu ta gero erri lanari, langille ta baserritarrai euskera erabilli dagiela eskatzea baño. Seme alabai euskerarik irakatsi eztautsen gurasoak, erri banari ori eskatzeko eskubiderik eztauko. Ori ikasbide txarra emotea da.

veces se rompe, por el desplazamiento del

Euskerea galduaz doala-ta, orren errua erriari egotzi nai dautsazue; baña erriak ezin dezar leukeenai jarraitzen dautse. Gure eunon naiz beste edonon bere zuzenzalle erri onentzat euskereak daukan garrantzi edo inportantzia dakienak, zokondora jaurti ba-dagie, erri gaxoak, ¿zer egingo dau?

Euskerearen areriorik andienak eztira arrotzak, euskaldun txarrak baño, eta euskaldunen artean kaltegarrieak, arropuzkeriz umeai euskerarik irakasten, eztautsien gurasoak. Euskerea galdu ba-dadi, orren errua euskaldun guztioena; baña batez be, andiki ta aberats usañeko gurasoena izango da.

Euskerearen alde iñoz baño lan geyago egiten da: ori ta guzti be Euskalerria eriotzara doala diñoe. Euskaldunok benetan nai ba'gendu, ori galerazoten geuke. Galerazo ezpa-daigu, gure erri onek bere eriotz-aldian lotsa gorriz esango dau: Arerioak il ba'nindue, nire oraingo atsekebe au dan baize samiña elitzateke; baña ilten nabenok semeak dodaz eta, lotsearen lotsaz birritan ,ilten nazala deritxat.

¡Guraso euskaldunak! olakorik ba'litz, orren errurik andiena zuena litzake-ta, noz edo bein itzartu zaiteze; zeuen umetxuei euskera irakatsi egiezue: gaur euskerearena dan sailtxua, ez egizue, arren, geyago meaztu; zeuen etxea euskerearentzat ez egizue galdu.

Euskaldun diran etxeak, euskaldun iraun ba-dagie euskerea sendotu ta bizkortzeko bear diran enparauak be egingo dira ta adu txarreko txori orrei gorantxiak emongo dautseguz.

J. B. E.

LARRAMENDI TA EUSKERIA

Aintxiña-aldiyetan, jakintza ta ikaskizun gurenetarako, latiñ eta onen antzeko beste izkuntza banakaren batzuk baiño etziran erabilten Europan. Nekez-nekez eta banan-banan aitzakotuten asi ziran erri-izkuntzak eta orain, bape diran aberriyok, bakoitzak bere izkeraz edo mintzaiz darabillez jakintza ta irakaskuntzok.

Larramendi'ren gizaldiyan (iya berreun urte igaroak dira ordutik eta ona)... ¡bai zera! iñori bururatu bez euzkeria orren goi-maillataratzeko gauza zatekenik be.

Baiña gizon zuurrak olakoxe arazoetan ezagutu oi dira: Larramendi Abak ordutixek aurrikusi eban, Euskalerriyau bizi al izateko, batez be orduan sendo zustraiturik agertzen ziran lege-zar peian bildur bagarik jarraitu al izateko, bertoko mintzaiau, euskeriau be jaso bear zala ikaskuntzetarako gai izateko neurriyan.

Gogo orrezaz asi zan gogor lanian eta, bere ustez bear-bearrekoen ziran oñarriyak imini zituan euskal-ikaskuntza landan: "El imposible, vencido" gramatikia bat, bestia "Diccionaro trilngüe".

♣ ♣ ♣

Beste gogalmen baten be erakutsi eban Larremendik bere zentzun ona: orain itz-barri-zaleegi diran askorentzat, egokiegokiyak dira berak idatzitako urrengo itzok.

"Euskereari eransi zaizka gaztelaniatik, latinetik edo beste izkundeetatik itz asko, baña adituaz ta oituaz euskerazkoak beziñ ongi aditzen diranak; eta oyek utzi bear eztitugu, ta bear bada noiz edo berriz obeko da onelakoak usatzea euskerazkoak baño, batez ere Elizgauzetan ta gure animen salbazioari dagozten egikarietan".

Beste toki baten onela iñoan, zuzen eta egoki:

"Yo comparo las lenguas al hombre, que tienen cuerpo y alma; su cuerpo es el conjunto de voces y su alma es la sintaxis y armonía que da ser a aquel cuerpo".

Aor bada Larramendiren irakatsi ederr-ederrak. Jaso daigun bai, aberastu daigun euskeria edozetarako gauza izateko bestean, baiña orretarako ez ekin erriyak darabiltzan itz ederrik asko, erderatikoak direla ta beste barik, baztartzen; ori elitzateke aberaspidea, irakurle gitxi oitua uxatzeko bidea baiño.

Gauza gaitzak, ikaskuntza gurenetakoak batez be, ezi azaldu geinkez itz-barririk naga; baiña, erri-kontuak, urliya ara joan dala, berendiya ezkondu egiten dala, ain tokitan ain abadek meza barriya kantau dabela ta abar eta abar ¿ezin aditzen emon erriyak darabiltzan itzez besterik erabilteke? ¿ezin euskaldunek zeatz aitu al izateko eraz?

♣ ♣ ♣

Goratu daigun Larramendi euskalzale aundiya, Andoaingo seme argiya, ta gogoan artu dayoguzan irakatsi euskuzan ikaskizun onurakorrok.

OIZ-MENDI.

EUSKUARARI DUZULA IRRISA

Aita Manuel de Larramendi'ren ohoretan zer da hoberik ezenetz haren solas zerbeiten argitaraztea?

Jesusen Compañiaco A. Sebastian Menburuc Euscaraz eracusten duen Jesusen bihotzaren devocioa agertu zuenean Donostian, 1747'an, huna *Libru onen Eguilleari* Aita Manuelek bidaldu kartaren hastapena: "Aita nerea, badaquit, eta hori aspaldicho da, arazo andietan zabiltzalá arguitarátzeco libru bat, Jesúsen biotzaréquico devocioari dagocaná. Yaquiñ ez ecen, iracurri ere badet óarrez, ta árretaz zure escuscribatua: eta icusiaz, ta erabilliaz, are geiago ezagutu det lan onén anditasuna. Gáyari banagóca, bátetik, eta béstetic hizcúntzari, baderitzat, guezurtátzen dituzulá Erdáldunen, ta Euscáldunen ustéqueta charrac, ta deseguiten, ta ayenátzen gucien lausóac, ta llilluraménduac...".

Andoaingo eskualdun bestak chede berera hel ditezela, *Euscáldunen ustéqueta charrac* desegitera.

Mahastian sartzetik ohoin aztaparrak
Maiz biribil daduzka hesiko lapharrak
Hala Eskuarak tieso derauzkigu zaintzen
Ohitura zaharrak, bai sinheste zuzen.

Besarkatuz ingura, iraungi, edoski,
Huntzak zuhaitza baitu ihartzen emeki,
Orobat churga churga, haur llipien gisa,
ZUK AMA ESKUARARI DUZULA IRRISA

Eskuara ikhas, mintza, eskuara irakur,
Lagunekin, etchean, elhe, solas, agur.

Erdaraz aphaindura, mamia Eskuaraz.

J.-B. DARANATZ,
Baionako Kathedraleko kalonjea

EUZKEL-ATALA

SORALUZE

IZPARKARIAK EIBARR'EN

Gipuzkoa ta Bizkai'ko egunerokoen izparkariak igandean (15) Eibarr'en bildu ziran alkar ezagutu ta lagin bezela anaitasunian eguna igarotzeko.

Geure kontu izparkaritzarik ez daukagu baña, juan egin bear zala ta, juan egin bear zala, an azaldu zan "Dris-dras" gixajoa be. Ainbeste erdel idazleen artean euzkel idazle bat edo bestek ain gaizki be ezeban emongo, ezta?

Alegindu ziran Eibartarrok albait ondoen artzen eta bai bete be euren guraria. Beraz geure eskerrak eurentzat.

GAURKO EUZKEL-EGUNA

Egun ontarako ostegunean esan bezela batu zana 46'50. Laskurain Timota, 2; Lazkurain Joxe, 3; Mendia'k, 1; Marista batek, 2; Zeleta'k, 2; Julio Usin, 2; Atxuritar bat, 1. Danera, 57,50 laurleko.

ZER EATEN DAN...

Alondigako pisua denpora asko dala ezertarako gauza ezta izan bear dabela.

Alondiga bat ganorasko pisu barik ez dagola ondo eta ipiñi egin bear dala bera baño aurreragoko lanik ezdalako.

Ori baño geiago, esaten da... zera Udalak erabakia artuta daukala lengo pisuaren ordez barri bat ekartzia, baña barri txiki bat, 150 kilo baño geiago pisatzeko izango ez dan bat.

Alako disparaterik Udal gizonak artu dabenik, askok eztabela uste ta denporaz ikusi bear.

COOPERATIBA BENEFIKA'K BATZAR NAGUSIA

Biar, astelena, gabeko zortziterdietan izango dau. Ara emen batzar berezi orren gaia:

1. Azkenengo batzar nagusiko akta irakurri eta bera ontzat artu-edo ez.
2. Tximist argi arazua ikasteko izentauta dan batzordearen kontu ematea.
3. Gipuzkoa'ko Cooperatiba'k Federazio baten batzeko arautegia irakurri ta ontzat artu edo ez bazpatz edo federazio orretan biltzea.

DRIS-DRAS.

ARRASATE (MONDRAGON)

ERIOTZA

Bat bateko batek ludi ontatik betiko eruan dosku Eizagirre' Kepa Don Pedro abadia emen danok deitutzen gotzan lez. Erri ontan urte asko egin dau ta gaur erri danak iñuan lez ezdu zer ezanik jarri iñoiz guztiok maite genduan eta olantxe agertukoda bere obiratzian. Atsekabian laguntzen dotsagu bere anai arreba ta gañetiko sendi danari eta irakurle otoitxo bat bere gogo aldez ,gure Yaun Altsuari. G. B.

EUZKEL-EGUNA'REN ALDEZKO ARPIDIA

Lengua, 23,50 laurleko.

Maiztegi' Pillipa, 2 laurleko; Etxebarria' Estepan, 1; Urkiola' Gergori, 1; Arregi' Satur, 1,50; Kerexeta' Luki, 1; Arregi' Tiburtzi, 5; Gorroñogoitia' Joseba, 1; Uribe-etxebarria' Mikel, 1. Guztiz, 36,50 laurleko.

EUZKO LANGILLIAK

Gogor diardue lanian atzo Aretxabaletan gizonezkuai eta gero emakumie illuntzian emen itzaldi ederrak egin ditu Larrañaga' Polikarpa jaunak.

UDALA-MENDI.

ELANTXOBE

ERIOTZIA

Igaro dan astian alde egin dau Jauna'ren izenian ludi onetatik, arrantzale zintzoa izan dan Foruria' Jagoba. Otoi bat bere arima alde, eta laguntzen deutsogu atsekabetasunian bere sendi guztiari.

GURE MUTIL GAZTIAK

Deun Eupeme eguna baiño iru edo lau egun lenago, entzun eben kai onetako mutillak, zelan egun orretan ospatuko dan Bermio'n batelan artian ariñeketa edo estropada bat.

Oldoztu eben, eurak be, juan biar direla batel bat artunda, eta iru edo lau egunian emen ibilli dira ikastaldiak egiten. Iñok ez genduan uste izango eze regingo ebenik Bermiotarren onduan, eta eurak beste ardura barik juan ziran batel ori artunda; irebazi dabe lenengo sariya, eta benctako pozgarriya ipiñi dabe erri guztian.

Zer deritzazue bost mutil gazte orren lanari? Aztuta egon gera, lenago emen egon ziran "erremolariyakin", eta orain ikusi dogu alde egin barik dagoala lan orretarako biar diran indarrak, eta ondo irakatsi ezkero, alde guztietan egingo leukie beste batzuek egite ndaben antzeko ariñeketiak.

Onen ordez bialtzen dodaz eurai, neure burutik urtendako oleskiyak, eta ez asarretu irakurle maitia ondo egin bakuak badira, ni enaz oleskariya, euskeltzale gazte bat baiño eta.

Deun Eupeme egunian
Arratsaldeko lauretan
Estropada bat ospatu zan
Bermio'ko uretan.
Notiña ugari egon
Itxas baztar aretan
Ordua izan baiño lenago
Guztiz beterik aurkitzen zan

Zerua itzel egon
Uda aldia izan arren
Aiziak eta euriyak
Urreratu gura eben.
Orregaitik itzeltasunik
Ez genduan idoroten
Danak gurariya bakarrik
Nortzuk irebaziko eben.

Amabi ziran batelak
An azaldu zirenak
Bat Elantxobe'kua eta
Amaika Bermio'kuak.
Akarregi Bigarrena
Izena eukan guriak
Eta bost arrantzale zintzo barruan
Danak mutil gazte gaztiak.

Ordua eldu ezkero
Asi zan ariñeketia
Bik batera urteten eben
Egiteko euran bidia.
Bermiotarrak lenengo
Azkenengo geuria
Olanik laindu ziran
Eginda guztian zoriya.

Gu notintza gutxi giñan
Bermiotarren aldian
Eta gizaxo antzian danok
Egotia euki genduan.
Zantzuak alde batetik
Eta "abarrotza" bestian,
Benetako jai eguna
Azaldu zan an orduan.

Uste eban gure batelak
Bermiotar baten orduan
Eta arin ikusi genduan
Nok irebaziko eban.
Benetako atsegiña
Sortu da erri onetan
Bein juan eta irebazi dabe
Bermio guztien artian.

Eldu baiño asko lenago
aundia zan euran aldia
Gure mutillak aurretik beti
Erakutsi barik nekia.
Ez bakarrik batel orrei
Kendu deutze aldia
Amaika areriyuakin
Irebazi dabe lenengo sariya.

¡¡Aurrera!! gogor mutil gaztiok
Iñori bildur izan barik
Zubekin urrun eldu leiteke
Ikastaldiko lanak ondo egiñik.
Zorionak danoi emoten deutzuet
Lan eder ori egiña gaitik
Ezkar ugariyak Ondarrutarrai
Maite izateko biyotz biyotzetik.

ITXASERTZE.

MAÑARI

YUAN-ETORRI

—Iruña'ra yuan zan egun batzuetako Askorbebeitia' Patxi mutilla.

—Emen alditxo bat igarota Elorrio'ra yuan ziran Sarobe' Sebasten'en sendiya ta Lete' Lone neskatillatxua.

—Logroño'ra Gonzalez' Elbire andrea ta Santurde Miren neskatilla.

—Gernika'tik etorri zan Rui-Wamba' Pillomen.

¡AGUR!

Andoain'en "Euzkel-Astean" batu zareen euzkeltzale guztiyori anai ¡agur! sutsu bat. Eta zeueek euzkera-aldez egiten dozuen lan aundi ta onurakorra Aita Larramendi euzkeldun zintzo ta eredua zanak zeru goitik onetsiko ai dautsue ba, zeueen gurariyak betiaz euzko oitura on-onak aurrera yarraitu daiyien be.

Gaur, zeueekaz batera biotzez diñogu ¡Gora geure ele maite euzkera garbi gozua!

GARITONANDIA' YAUNAREN GOGO-ALDEZ

Euzkeltzale batzuen aginduz, astelenian emon zan meza bat emengo eleizan Garitonandia' Bitor euzkeltzale zintzo-zintzua zanaren gogo-aldez. G. B.

EGURALDIYA

Lengo gabetako oñeztu ta turmoi ots itzelakaz uste gendun Mugarra guztiya etorrela bera, edo ekatx aundiyen baten azpiyan gengozala. Baña sarri yazoten dan lez, zarata aundiyak atze txikiya ekarri eban, aterruna batzukaz yausi zan euriya lur azalian geratu zan. Egunokaz be nozik beiñ euriya gozaro-gozaro polito yausten da.

ARTUAK

Soloetan arto eder-ederrak agiri dira. Batian-bestian, lengo urtietan baño lasto indartsu ta buru aundi ta ederrakaz artotza galantak ikusten dira. Udagoiyen ona baña, datorren eta urrengo illian artue sendo batuko da.

Indibabia be ugeri dau, beintzat leka asko agiri dabe; baña orraitik, egon dan legortiaren kaltia izan ezpalitz askoz be geiyau egon biar eban. Dana dala, igez baño baba geiyau izango dala esan lei.

SANTI-KURUTZ

Igaro dan asteko sapatuan, Gurutza Deuna'ren egunian, goizeko zortziretan emon zan meza abestu bat Kurutze-Santu'ko ermintan.

SAGARRAK

Sagar zugatzak daukien edertasuna ikusgarriya da, garaun aundi ta ugariyaz lapie baño be betiau dagoz. Aurten, baserri sabaiyok betekada galanta artu biar dabe.

BASERRI-LANAK

Ill-onetan, datorrenian eta urrenguan irak ebai, gaztañak batu ta etxeratu arte baserriyetan biarra ugeri izango da. Orain egualdi onak lagun badira aillorba bedarrak ereiteko asmuetan dabiz.

Aste onetan asi dira ira ebaiten.

MAÑARIKO.

LASARTE

ANDOAIN'GO EUSKAL-JAIETAKO

Pozik gaude, oso pozik Andoaingo Euskal-jaietako erri ontan agertu dan zaletasunagatik. Beste erriak, au baño aundigoak izan arren, arpide eskasa agertu dute gurean aldean. Gure erriya onela azaltzia, egiya, pozgarri zaigu. Ara emen orain arte bildutakoa: Lendik, 164. Zuaznabar' Pelo, 3; Larburu' Juan Mari, 2,50. Guztira, 169,50 laurleko.

EGAZKIA

Lengo astelenian etorri zan Ipodromo'ko zelaira Nelia" txokolate-etxeko egazkia. Egun auetan emen dabil jira ta bira goi-zaleak ibiliaz. Gañera noiz edo noiz "paracaidas" politetan txokolate koskor batzuek botatzen ditu. Onak edo txarrak diran jakin nai badezute emengo mutikoari galdetu; berak dira danen jabe egiten diranak.

ZALDI ZALEEN JOLASAK

Lengo asteazkenean laisterketako zaldi-mutillak egin zuten emen kirol-jai polit bat. Goizean korrikako laisterketa eta arratsaldean 200 ta 400 metroko laisterketak, ukabilketa, asto laisterketa ta abar. Arratsaldeko jolasak Ipodromo'an egin ziran eta eguraldi txar-xamarra izan arren oste aundia bildu zan.

A-BI.

SEGURA

ESKERRAK

Gutxitxorekin bederik ere, gere esku erakusia agertzeko laguntza apurra bidaldu diegu Andoain'en euskaleguna zuzentzen duten jaunei eta dirua eman duten guziei eskerrak ematen diegu. Seguraren izena, Udal edo Aiutamentua aurretik duela agertzea izan degulako. Eskerrak bada guzioi.

URBIKO JAIA

Igaro dan igandean emengo txistulariak eramanda egin zuten Urbiko jaia.

BIDEZKUNDEA

Igande onetan Frantziskotarrak Donostira daukaten bidezkunde edo peregrinazionara Berasategi' Tomas apaiz jauna buru dutela irugarrendarrak juateko dira.

BARTZELONA'RA

Ostegun onetan juan dira Legorburu' Laureano eta Osiñalde' Juan Jose, Bartzelona'ko erakustokiak ikustera. ¡Ondo ibili!

ZARTZARO-OMENA

Igazko zartzaro-omenean iruri eguneko errel bi ipini zitzaien eta aurten igazko irurai beste errel biko bana jaso eta beste iruri ere peseta bana ipini diote; guzira sei auek dira bizi diran arteko eguneko pesetea dutenak, Aspaotza-txikiko Mendizabal' Josefa Agustina, Osiña'ko Ugalde' Jose Mari, Ariztimuño' Basilia, Arrondo' Maria Rosario, Aramendi' Anamari eta Berasategi' Lina. Guziai urte askotan txanpon oiek gozatzea opa diegu.

ZARREN JAIA

Baliteke igande onetan, zartzarorako sariaren agiriak emanaz udal edo aiutamentuak jai polit bat egitea.

SARIA

Gobernadore jaunak emengo gexo etxerako milla erreal bidaldu dizkigu, multadirutan bildutakotik.

BIDE-BERITZEA

Zorioneko Kalenagusiko bide ori bear bezela ipintzeko erematea illaren azken aldera izango dala esan digute. Ori ondo.

IKERRALDI ATSEGIÑA

Erriz-erri ibilli ondoren, naiz ta iradukor izan, pozik agurtu ditugu Lzardi, Orixe ta Aranguren jaunak. Emengo aurrak Andoain'a eramateko gogotsu etorri ziran, baña... a la bearrez gertatu gabe geunden eta beste baten bearko.

ANDOAIN'GO EUSKALEGUNARI LAGUNTZEKO SEGURAN BILDU ETA ANDOAINGO EGIBAR' PABLORI BIDALDUA

Segura'ko Udal edo Aiutamentua'k, 25 lauerleko; Zurbano' Luis, 25; Elosegi' Miguel, 5; Ondarra' Teodoro, 3; Bereziartua, 3; Berasategi Tomas, 2,50; Zabaleta' Juan Kruz, 2; Artzelus' J. R., 0,50; Garategi' Fermin, 5; Aranburu' Inazio'k, 2; Aranburu' Kontxita, 3; Goena' Leontzio, 3; Etxeberria' Joseba, 2; Etxeberria' Joakin, 2; Mujika, Jabier, 2; Galparsoro' Joan Marik, 2; Izagirre' Antonio, 2; Telleria' Kasimiro, 2; Lezeta' Jose, 2; Osiñalde' Juan Jose, 2; Legorburu' Laureano, 2; Galartza' Jazinto, 2; Gorrotxategi' Jose, 2; Artzelus' Nikolas, 2; Albisu' Jose, 2; Ormazabal' Jose, 2; Intxausti' Nikomedes, 1; Arostegi' Jose, 1; Etxeberria' Estepan, 1; Legorburu' Domingo, 1; Etxeberia' Jose Mari, 1; Mintegi' Joxe, 1; Arostegi' Patxi, 2.

Guzira, 115 laurleko.

—Idazle ta irakurleak, igandean alkar ikusteko Andoain degu egokiena. Bertara arte ba-da.

OTARRA

IZURTZA

AGUR

Euzko aste onetan Andoain'en Euzkera aldez biltzen zeraten gure endako zuri nai beltz batez bere bertako langille guzti ori agur biotzetiko bat.

"URETABARREN"-I

Guztiz atzegintasun aundiagaz irakurri dodaz zure azkenengo Orobio'tik bialduriko idazki polit biak. Oso polito idazten dozu lagun, eta alegindu zarri zarri bidaltzeko zeure lanak, izartu daitian orko eta emeko euzkaldun geienak.

ORREK BILBELOK

Igandian arratsaldian erri onetan jentia erromerian daguala eldu zan beingo baten bilbel bat Ortuoste Kasilda zortzi urteko neskatua azpian arturik, eta Jaungoikuak daki zelan neskatua atara eben bilbel azpitik ezetariko ez biar barik.

Onetara arin ibili azkero zigorra ezarri biar leukie agintariak edo baria lez ibili daitiela jente mordozkak dagozan lekuetatik.

LUGIÑAREN ALDI ONENA

Urte guztian ibili dira gure lugin gixaxuok beruak urtu biarrez baña Jaungoikuaren laguntasunagaz eldu iake garaia euren lan aztunaren ordaña artzeko. Eguraldia puzkat otz kirritu dau lez alan euren matralla gorritxuak bere argituagaz iuakez erakusten dabela euren poza azi dirianian lugin gauzak etxeratzen tomatia piperra eta onetariko iateko ariña aldi onetan guztiz merke eta ugari dabil, baña beste enparauiateko jauzki eta ozki zapata gauzia gomallan geldi geldi aurkitzen dira eta gatx erdi gorago igo barik geldi daguanian edo dagozanian.

AZTERKETETARA

Eguenian juan zan Santander'era Irastortza Eusebi bere ikastaruako azterketak egiten. Gorengo zenbaki bat zakelian zartuta biurtu Eusebi zeure Aita maitiagana.

NASKALDIJA

Emen izan ziran igandian erriko seme dan Gangutia' Atanasio bere alaba bategaz.

Etorri da Areitiourtena Kepa abadegei Oletarra.

Bermeotik etorri dira Gerediaga Imanol bere emazteagaz.

Errioja'ko Reinosatik etorri dira Gerediaga Polentzi eta Gerediaga Erramon.

Eibar'tik etorri dira Zuazua Leokadio eta Zuazua' Pilar nebarrebak.

ARTZAÑA.

ZEANURI

PELOTA YOKOA

Igandian 22 barriro egongo da arratsaldeko 5'tan. Areatza'ko Zufiria da Artamendi garriko gorridunak. Etxandia Balentin ta Bernola Dima'ko onenok da Iurre'ko Albaro azulek. Gar andie dago partiduan ikusteko da igandean Urraburun Zabala lagun askogaz izango da inguruetako errietatik etorrite.

DEUN MIKEL

Urkizte'ko auzunian ospatuko da igandean bertako ermiten meza nagosia izango da itzaldiagaz. Da Altzuzteko auzunian bere egunian.

ZORIONAK

Goikouria Martina Ipiñe'ko ikastolako neskatille zoliari, bere artezketa ain onakatik 500 laurleko izentau dautso Diputaziñoak irakasle ikasten yarraitu dayen lagungarritzat.

Iruña (Pamplona) tik etorri da irakasle tzako artezketak eginda Sagarna' Jon.

Valladolid'tik Mugarza mutilla.

Baita Burgos'era irakasle ikasten yoateko da Arana Alkiber'ko mutilla.

Iruña'tik etorri da Intxaurbe Peli irakaslea.

Gazteiz'tik etorri da Goikoetxea' Eleuteri baita an izan da bere sendiko batzukez oraintsu Filipinetatik etorrito erri-onetako seme Astondoa' Ander.

Eguenean emen izan ziran bilbeletan etorrita Larrakoetxea Ipolita Aba; Zuluaga Zamudio'ko txaunburu, Berango'koa da Bilbo'ko andera batzuk.

MADARIAGA' MARKELIN'ERI

Jarraitu ba Areatza'tik itz-naurtuek bidalduten pozik irakurten doguz, da bide batez ia, euzkera zaletasune zartzen dan erri-orretan bearrezine baidagota iñon bada.

EUZKERA GATXA DALA IKASTEN?

Oleaga latari jaunan etxean neskame dauko Santa Cruz de Campezu'ko neskatilla bat. Etze onetan sartuta bost bat illabete barru euzkera ederto ikasi dau, da beti euzkera itz-egiten yarraitzen dau, da pozik egin be... da ez "mamala" asko lez bere amaren izkuntzian itz-egin baño egiñez gurago dabela.

AURTEN IGALIAK BAI DAGOZ...

Sagarra da ostantzeko makatza da madarie bai dago aurten' ikoak emen ugari dira "Bekoleta" non didan eztakigun arren.

BASERRITAR BAT.

URRETXU'TIK

YAYOTZAK

Jun dan astean izandu ta lenbziko semetxoa Ormazabal Iñakin emazteak, eta ezarri diyote euskal izen Iñaki. Baita Arapazaren emazteak ikusieu seme bat geigo nola jayo berriyak ta nere bi adiskiren emazteak daude osasun onian. Zorionak.

EUSKERAKO EGUNA

Aurten degu Andoain'ian, erri guztitatik bialtzen ai dira tixndi ugari, eta guk Urretxuarrak betiko eran loo lasai, ¿ez ete gara eznatuko? garaya degu. Esan beardiana ba gogo aundikin jungo giñake baña egun bertan ditugu erriko pestak batez ere amar urtian ikusi ez ditugun ezpata dantzari izango degu aurten.

DANTZARIYEN ARPIDEA

Ona zeñek ze emanduan oraiñ arte.

Alkate jaunak, 20 laurleko; Antia' Anjel Joseba, 20; Zubizarreta' Ramon, 5; Emakume batek, 5; Zabaleta Martin, 5; Aizpurua Tomasa, 5; Arrieta anayak, 5; Agirre Agustin, 5; Egiburu, 5; Murua Cruz, 5; Toki-Alai, 5; Lizarralde Boni, 5; Zu-Zale, 3; Okariz' Maria, 5; Aranguren, 5; Ikertar Maitia, 5; Gandiaga' Leokadia, 5; Etxeberria alarguna, 5; Telleria, Eujeni, 4; Azkazibar Luciano, 5; Arozena, J. M., 5; Berriotxoa' Pablo, 5; Ormazabal Rafael, 5; Sasieta Jose Inacio, 5; Rojo F., 5; Elgarresta Felipe, 5; Plazaola' Santos, 2; Azkarate Pakundo, 2; Txurruka F., 2; Goyerista batek, 2; Garate Manuel, 2; Arrizabalaga Joseba, 1; Laguntzallebate, 2; Mendia Laureano, 2; Albizua Nikolas, 3; Bengoetxea senideak, 4; Juan Jauregi, 1; Ibarzabal Daniel, 1; Okariz Tomas, 1; X. X., 1; Mendiola Inocencio, 2; A. Anastasio, 1; E. Agustin, 1; Elias Sasieta, 1; Jauregi' Elias, 2; Mandiola Francisco, 1; Azkarate Bizente, 1; Jauregi Esteban, 2; Agirreurreta Kandido, 1; Murua Felis, 1; Ormazabal Illari, 3; Gregorio Aranguren, 1. Guztira, 190 laurleko.

Eman nai duanak oraindik ere astiya dauka, bada ezpata-dantza aurrera ikustea nai badegu lagun egin arpide oneri.

ERBINDURA.

GAURKO EGITARAUA
(Programa de hoy)

Goizeko seiretan: Erriko eresbatzeta txistularien soñu alaiak.

Zazpiretan: Jaunartze orokarra.

Bederatziretan: Tolosa, Leitza ta Berriz-ko dantzari, ta Euskal-egunera datozen beste zenbaiten sarrera.

Amarretan, meza nagusia Euskaltzaindiko apaizak emale dielarik. An izango dira Aldundi Erri-agintari ta Euskalerri'ko jakintza-batzordetakoak. Eliz-itzaldia Euskaltzaindi'ko Eguzkitza' J. B. jaunaren gain.

Mokoroa J.-ren, *In honoren Sancti Joannis Baptistae* lau abots eta beetik abesten dan meza bikaña.

Amaika terdietan: Gaurko errebote pelotarien artean asmatu diteken partidurik onena; Euskal-prantzesak, emengoen aurka.

Amabietan: Angelus, oitura dan bezela.

Arratsaldeko ordu-batetan: Agintari ta bestien bazkariak.

Iru terdietan: Euskal-dantza osoa—lenengoz Euskalerria'n—Tolosa, Leitza ta Berriz'koen artean.

1. Esku-dantza.
2. Aurreneko ingurutxoa. (Bitartean aurreskua).
3. Bigarren ingurutxoa. (Tartean Berriz'ko dantza.)
4. Azkeneko zortzikoak.
   Ondoren bertsolariak.
   Gero dantza ta dantza.

Bitartean Berriz eta Leitza'ko dantzariak, euren txistulariak aurretik dituztela Etxeberrieta'ko ostiko-jolas-zelai eder era zuzenduko dira. Emen jokatuko da.

Euskalerr'ko lenengo Palanka txapeltza.

Gañera Olinpar jolasetako pixu, gurpil eta jabalina jaurtilarietan, Euskalerriko oneenen saioak.

Tartean Berriz'ko dantzariak batez ere, erakutsiko dituzte beren dantza yayo ta jatorrak.

Angelus entzutean Eliz-aurrean Usandizaga'ren "Avemaría" ta Larramendi'ren ereserkia abestuko dira.

Zortzi-t'erdietan, bukaera.

Antzerkia. Donosti'ko Iztunde'koak antzestuko dute Toribio Alzaga'ren iru ekiltalditako

"TANTARRANTAN"

jostirudia.

A las seis de la mañana: Diana por la Banda municipal y tamborileros.

A las siete: Comunión general.

A las nueve: Llegada de los grupos de dantzaris de Bérriz, Leiza y Tolosa.

A las diez: Solemne misa mayor, oficiada por los señores sacerdotes de la Academia de la Lengua Vasca, con asistencia de las autoridades provinciales y municipales, académicos, representaciones de Sociedades culturales y Comisiones. Ocupará la sagrada cátedra el elocuente orador don Juan Bautista de Eguzkiza, de la Academia de la Lengua Vasca.

Se interpretará la brillante partitura, a cuatro voces y coro popular, *In honoren Sancti Joannis Baptistae*, del maestro Mocoroa.

A las once y media: Gran partido internacional de pelota a rebote, entre las selecciones de Francia y España.

A las doce se suspenderá el juego para rezar el Angelus, según antigua usanza del País.

A la una: Banquetes, popular y de autoridades.

A las tres y media de la tarde:

1. Danza vasca completa—por vez primera en el País—a cargo de los grupos de Bérriz (Vizcaya), Leiza (Navarra) y Tolosa Guipúzcoa).
   a) Danza de manos o cadena.
   b) Primer ingurucho (con aurresku intercalado).
   c) Segundo ingurucho, intercalando la danza de Bérriz.
   d) Zortzikos finales.
2. Torneo de bersolaris.
3. Gran romería vasca.

Simultáneamente y precedidos de sus respectivas Bandas de tamborileros, los dantzaris de Bérriz y Leiza se dirigirán al hermoso campo de Echeberrieta, donde tendrá lugar la tan esperada exhibición de lanzamiento de barra, disputándose el primer campeonato vasco.

Exhibición de lanzamientos olímpicos de peso, disco y jabalina por los mejores atletas del País, algunos de ellos recordman de España.

Al mismo tiempo, y alternando con estos lanzamientos, los bailarines de Bérriz mostrarán su extenso repertorio de clásicas y viriles danzas.

Al toque de Angelus, y para terminación de la romería, se cantará en la plaza de Alfonso XIII el himno al Padre Larramendi y el "Avemaría", de Usandizaga.

A las ocho y media, acto final.

Representación de la comedia en tres actos, original de don Toribio Alzaga.

"TANTARRANTAN",
por la Escuela de Declamación Vasca del Ayuntamiento de San Sebastián.

Suscripción pro "Kirikiño"

	Pesetas
Suma anterior	3.124,—
Laureano Larrea	5,—
Total	3.129,—

Para el día vasco